

Urriak 17, Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna



17 de Octubre 2015

Construir un futuro sostenible :
unirse para erradicar la pobreza y la discriminación

Euskadin gero eta gazte gehiago daude benetako pobrezia-egoeran


Urriaren 17an Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadin pobrezia-egoeran dauden gazteei buruzko datu batzuk azalduko ditu. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak aldian-aldian burutzen duen [Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta](#) (PGDI) izeneko ikerketaren emaitzak aztertu ditu Gazteen Behatokiak.

Azken inkestari ([2014koari](#), hain zuzen ere) erreparatuz gero, esan dezakegu Euskadiko Autonomia Erkidegoko 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 8,7 benetako pobrezia-egoeran dagoela. Benetako pobrezia diogunean, esan nahi dugu aipatutako urtean gazte horiek bizi diren etxeguneetan ez dituztela ez diru-sarrerara nahikorik ezta ondare nahikorik ere oinarritzko premiei (elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastu ohikoei) aurre egiteko.

Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoa (edo, beste modu batean esanda, gazteen benetako pobrezia-tasa) handitu egin da azken urteotan eta % 6,9tik % 8,7ra pasatu da 2008-2014 aldian.

Gainera gazteen benetako pobrezia-tasa biztanleria osoarena (2014an % 5,9) baino handiagoa da.

Benetako pobrezia-egoeran dauden gazteen eta biztanleria osoaren ehunekoen bilakera (2008-2014)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak eginga, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako saileko datuak oinarri hartuta (Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2014)

Jarrai gaitzazu sare-sozialetan!

